

Eragiketako aktibo gehienak **Andaluzian** eta **Madriren** daude

Kutxabankek 358 milioiko mailegu kaltetuen zorro bat saldu dio Cerberus-i

- **Berankortasun indizea % 2,5era jaitsiko du, baxuenetako bat EBZk ikuskatutako erakundeen artean**
- **Bankuaren posizio optimoa finkatzen du, aktiboen kalitateari eta kaudimenari dagokienez**

2019ko abenduaren 19an. Kutxabank Taldeak mailegu kaltetuen (zalantzazkoak eta kobraezinak) zorroa saldu dio Cerberus Capital Management, LP-ren menpeko sozietate bati, **358 milioi** euroko balio gordinen. Berme errealeko maileguek osatzen dute zorro hori, antzinasun handia dutenak, eta batez ere Andaluzia eta Madril erkidegoetan kokatuak.

Eragiketaren formalizazioari esker, Europako Banku Zentralak ikuskatzen dituen bankuen artean, bizitegi-hipoteken **berankortasun tasa baxuena** eta berankortasun globalik txikiena duen erakunde espainiarra izango da Kutxabank. Taldearen **berankortasun-ratioan** aurreikusitako inpaktua oinarritzko **60 puntu** baino gehiagokoa da, beraz, **% 2,5eraino jaitsiko da**, eta **bizitegi-hipoteken zorroaren** berandutze-tasa **% 1,5eraino** jaitsiko da.

Zorroaren salmentak **CTE1 'fully loaded' kapitalean ere eragin positiboa du**, oinarriko **10 puntutan** hobetu baita, eta %17tik gora igoko baita, Europako Banku Agintaritzaren arabera, Espainiako finantza-erakundeen artean altuena. Hala eta guztiz ere, bere posizionamendu ona hobetu du Kutxabankek, Europako finantza-sistemak 2020. urtean izango dituen stress testei begira.

Eragiketa bi fasetan osatuko da, eta Alantra inbertsio-bankuak koordinatutako eskaintza lehiakorreko prozesu baten bidez egin da. Kutxabankek behar bezala itxi du salmenta, interesa adierazi duten 20 inbertitzaile ingururen eskaintza indikatiboak eta lotesleak aztertu ostean.

Eragiketa honek auziei eta mota horretako aktiboen kudeaketari lotutako kostuak murriztuko ditu, eta ez du eragin esanguratsurik izango emaitzen kontuan, urteko mozkinak erakundearen Plan Estrategikoak finkatutako helburuen ildoari eutsiko baitio.

Gainera, Kutxabanki aukera ematen dio Europako Banku Zentralak ezarritako zuhurtziazko horniduren eragina murrizteko; izan ere, 7 urtetik gorako antzinasuna duten bermedun zalantzazko arriskuak osorik hornitzera behartuko dituzte erakundeak, emaitzen kontra edo kapitalaren kontra.

Euskal finantza-taldeak horrelako transakzio bat burutzen duen bigarren aldia da, duela urtebete **700 milioi** euro inguruko arrisku-zorro sustatzaile problematikoa saldu ondoren.

Kutxabankek azken ekitaldietan egindako balantzearen onbideratze-prozesuari esker, Bankuaren **zalantzazko aktiboak % 78** murriztu dira bost urtetan –bere aurreikuspenen oso gaineratik–, eta **bizitegi-berandutza % 50**.